

## ANALISIA



# Independentzia bultzatzea kapitala ahultzeko aukera



Lander Arbelaitz

@larbelaitz

ARGAZKIA: @JOSUKRISTO

Independentzia, helburu gisa baino, gizarte justuago bat lortzeko tresnatzat du askok Katalunian eta Euskal Herrian. Herritarren bizitzan oinarritzkoak diren eremuetan burujabetza planteamentuak bultzatzea da gakoa: ekonomia, elikadura, energia, telekomunikazioak, informazioa... Independentziaren aldeko borroka oinarri horietan erakiz, politika neoliberalerakin bazterrean geratzen ari den jendea independentismora erakartzen saiatu eta masa independentista pixkana ezkerrean eramatea izan daiteke jokaldia, konplexurik gabe azalduz posizio politikoak. Gauzak horrela, Kataluniako prozesua pedagogia egiteko aukerak ematen ari da, baliatu nahi dituenarentzat. Sabadell eta CaixaBank bankuen kasua da azkena.

Beren egoitza soziala Kataluniatik atera dutela iragarri dute, Kataluniako independentismoari presio politikoa egiteko asmoz. Kontuak zer diren, euskal herritarrokin harreman zuzena dute bi bankuok: Banco Sabadellek Banco Guipuzcoano jan bazuen, CaixaBankek irentsi zuen Nafarroako CAN. Espainiako batasunaren alde mugitu diren bi bankuotan, kataluniarren independentzia babesten duten zenbat milaka euskal herritarrek ote dauzkate aurrezkiak? Kataluniako udal eta herritar uga-

ri bidea erakusten ari dira elkartasuna adierazi nahi dutenentzat: dirua atera, ahuldu egitura ekonomiko hauek. Nafarroan #BagoazCaixaBank kanpaina mugitzen hasi dira. "Gaur Kataluniaren aurka ari dira, bihar Nafarroaren aurka izan liteke", diote. Euskal Herriko zenbat udalek dituzte diruak bankuotan?

Eredu kapitalista gaintzen saiatzeko, egitura hauek ahultzea bezain garrantzitsua da bizitza erdigunean jartzten duten proiektuak indartzea, azken aldi eragile ugari nabarmentzen ari direnez. Fiare eta Koop57 eredu ditugu finantza esparruan, bi adibide aipatzearen. Bi ekintzak lotuz, aukera dago mahai gainean Kataluniarekiko elkartasuna adierazi, erakunde hauei presioa egin eta herrigintza ikuspegitik pausoak ematen jarraitzeko.

Eta bankuokin esandakoa energiaren alorrera, telekomunikazioen esparrura, elikaduraren edo hedabideen mundura eramanez gero? Etxean Iberdrola beharrean Goiener kontratatzea edo Kataluniako prozesuari buruz informatzeko Espainiako hedabideak utzi eta euskarazkoak hautatzea norberaren hautua da. Kataluniarrei lagundu eta aldi berean Euskal Herria behetik gora indartzen joateko, burujabetzaren aldeko lana egin daiteke esparru askotan.

## EKONOMIAREN TALAIAN

## Katalunian enpresa exodoa?



Juan Mari Arregi

Kataluniako prozesu soberanistak Espainiako Estatuko botere guztiak bat egitea ekarri du independentzia lortzea eragozteko. Erasoaldiak ez du aurrekaririk, eta euskaldunoi abisu moduan, Kataluniako herritarrak beldurtu eta itotzeko ari dira aurrera eramaten. Gobernua, monarkia, tribunalak, auzitegiak, poliziak... Denak bat, herri borondatea ezagutua eta onartua izan ez dadin.

Herri katalanaren eta bere gobernuaren irimotasunaren aurrean, sektore ekonomikoaren txanda da orain, bankuak buru dituztela; Moncloatik eta Zarzuelatik telegidaturiko eraso da. Lau haizetara iragarri da Sabadell, Caixa Bank eta Gas Naturalek Katalunian duten egoitza soziala utziko dutela, eta beste enpresa batzuek ere gauza bera egin dezaketela, hala nola Codornik eta Freixenetek. Nazioarteko Diru Funtza eta nazioarteko agentziak ildo beretik doaz. Tesuinguru horretan, fronte mediatiko antikatalanak "izualdia" edo "enpresa exodoa" moduko hitzak erabili ditu eta Katalunian enplegua arriskuan dagoela nabarmendu. Beldurraren estrategiaren parte da, balizko independentzia aldarrikapen baten aurrean katalanak kikiltzeko.

Hala ere, independentzia aldarrikatzen bada, denbora labur bat igaro ondoren enpresa eta banku horiek itzuli egingo dira, etorkizuneko errepública horretan negozioa dutelako, profesional oso onak daudelako, lan eskua ere bai, eta euren interes ekonomikoak hor daudelako. Orain beldurra sartu behar dute, botere politikotik hori eskatzen baitiete. Ekaitza pasata eta ikusten denean presio horrek ez duela ezertarako balioko, itzuliko dira euren kontuentzako emaitza onak lortzen dituzten tokira. Kapitalak ez du aberrik, horietako bakoitzetik elikatzen da. Denborarekin ikusiko duzue!